



EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAREN ETA ITSAS GARAPEN ELKARTEA, FLAG TOKI-EKINTZAKO TALDEAREN ARTEKO HITZARMENAREN GEHIGARRIA, PARTAIDETZAZKO TOKI-GARAPENENKO ESTRATEGIA APLIKATZEKO.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 21a.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila, Bittor Oroz Izagirrek ordezkatuta, apirilaren 16ko 250/2013 Dekretuaren arabera (250/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, izendapena xedatzen duena), eta 68/2021 Dekretuaren 6.k) artikulua ematen dizkion eskumenekin bat etorritz.

Bestetik, **ITSAS GARAPEN ELKARTEA, FLAG** Tokiko Ekintza Taldea, egoitza Vitoria-Gasteizen duena (Granja Modelo kalea z/g, Arkaute), eta G01546696 Identifikazio Fiskaleko Kodea duena, Aurelio Bilbao Barandica ordezkarari duela, haren presidente gisa, eta gehigarri hau sinatzeko behar besteko ahalordea duena, Luis Villanarne notarioaren 2020ko uztailaren 21eko 876 eskritura publikoaren arabera.

Hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE

Lehenengoa. – 2017ko urtarrilaren 1ean, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta Itsas Garapen Elkarteak, FLAG Tokiko Ekintza Taldearen arteko hitzarmena sinatu zen, partaidetzazko toki-garapeneko estrategia aplikatzeko.

Bigarrena. – Hitzarmen honen xedea da partaidetzazko toki-garapeneko estrategia aplikatzea aurrerago adieraziko den jardun-eremuan, Europako Itsas eta Arrantza Funtsekin 2014-2020 Programa Operatiboaren arabera (aurrerantzean, 2014-2020 EIAF). Europako Batzordeak onartu du programa hori, 2015eko azaroaren 13ko betearazpen-erabakiaren bidez.

Hirugarrena. – 2016ko otsailaren 3ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozedura baten bidez, Itsas Garapen Elkarteak, FLAG Tokiko Ekintza Taldeak partaidetzazko toki-garapenerako estrategia bat aurkeztu zuen, zeina Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren 2016ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez hautatu baitzen, eta 2016ko abuztuaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (153. zk.).

Laugarrena. – 2019ko abenduan, Itsas Garapen Elkarteak (Flag) partaidetzazko toki-garapeneko bere estrategia ebaluatu zuen, eta ondorioztatu zuen, alde batetik, programatutako ekintzak areagotu egin behar zirela, dagoen potentziala hobeto aprobetxatzeko eta estrategia berrikusteko prozesuan identifikatutako behar neubei erantzuteko; eta, bestetik, Plentziako udalerrira esku hartzeko arrantza- eta akuikultura-eremu berri gisa sartu behar zela, finantza-hornidura handitzeko.

Bosgarrena.- 2021eko otsailaren 3an, Itsas Garapen Elkarteak (Flag) partaidetzako toki-garapenerako strategiari proposatutako aldaketak onartzeko eskatu zuen, estrategia hori ebaluatzeko prozesuaren ondoren, bai eta arrantza-sektoreko langileen higiena, osasuna eta segurtasuna bermatzeko neurriak sartzeko ere, COVID-19ren pandemiak eragindako krisialdian. Halaber, Euskadiko Finantza Planari egokitzen zaion Estrategiaren finantza-koadro berria aurkeztu du, 2014-2020 aldirako Europako Itsas eta Arrantza Funtzaren Programa Operatiboaren esparruan.

Seigarrena.- Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen 2021eko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez, Itsas Garapen Elkarteak (Flag) kudeatzen duen tokiko garapen parte-hartzailerako estrategia onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsas Arrantzarako Europako Funtzari buruzko 508/2014 (EB) Erregelamenduan babestuta.

Zazpigarrena.- sinatutako hitzarmenaren hamabosgarren oinarriak hau ezartzen du:

"Hitzarmen hau bi alderdiak ados jarrita aldatu ahal izango da, partaidetzako toki-garapeneko strategiaren garapen eraginkorren arabera. Horretarako, alderdiek aldaketa-akordioa sinatu beharko dute, eta akordio hori iraupen-epa amaitu baino lehen sinatu beharko da.

Aldaketak, 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 56. artikuluan aipatzen den ebaluazio-planetik erator daitezkeenak barne, finantza-koadroak aldatzea badakarte, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak onartuko ditu, eta FEMPen 2014-2020 Poren Jarraipen Batzordeari helaraziko dio, hala badagokio, behin betiko onar ditzan".

Azaldutakoarekin bat etorritik, eta beren eskumenak baliatuz, bildutako alderdiek erabaki dute 2017ko urtarrilaren 1ean sinatutako hitzarmenaren aldaketa hau formalizatzea. Hona hemen hitzarmenaren

KLAUSULAK

Lehenengoa. – Xedea.

Eranskin honen xedea da aldatzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Itsas Garapen Elkarteak, Flag tokiko ekintza-taldeak 2017ko urtarrilaren 1ean sinatutako hitzarmenaren bigarren klausula ("finantza-zuzkidurak"), hirugarren klausula ("ekimenaren eremu geografikoa eta xedea") eta I. eranskina, partaidetzako toki-garapeneko estrategia aplikatzeko. Gainerako klausulak, berriz, ez dira aldatuko, hamabosgarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. – Bigarren klausula, "Finantza-zuzkidurak", aldatzea.

Alde sinatzaileek adostu dute aldatzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta Itsas Garapen Elkarteak, Flag tokiko ekintza-taldearen artean 2017ko urtarrilaren 1ean sinatutako hitzarmenaren bigarren klausula ("finantza-zuzkidurak"), partaidetzako toki-garapeneko estrategia aplikatzeko. Honela idatzita geratuko da:

"1. – Erkidegoko funtsen eta EAeko Administrazioaren finantza-ekarpena izango da strategiaren kostu osoa, hasieran 10.622.921,97 eurokoa izango zela kalkulatu baitzen. Guztizko kostu hori, neurrien, agente finantzatzaileen eta urtekoen arabera zehaztuta, hitzarmen honi I. eranskin gisa erantsitako finantza-koadroetan jasotzen da.

Era berean, Tokiko Ekintza Taldeak finantza-koadroak sartu ditu bere estrategian.

2. – Bai Eusko Jaurlaritzaren finantza-ekarpena, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak urtero finkatzen duen aurrekontu-zuzkiduraren kargura, bai 2014-2020 programazio-aldi osorako EIAFen finantza-ekarpena, 10.622.921,97 eurokoa izango da.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta EIAFen finantza-ekarpen guztiak gauzatzeko, laguntzak arautu beharko dira alde aurretik, eta, hala badagokio, urteko deialdiak egin beharko dira ".

Hirugarrena. – Hirugarren klausula, "Ekimenaren eremu geografikoa eta xedea", aldatzea.

Alde sinatzaileek erabaki dute aldatzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta Loal Itsas Garapen Elkarteak, Flag ekintza-taldearen artean 2017ko urtarrilaren 1ean sinatutako hitzarmenaren hirugarren klausula ("ekimenaren eremu geografikoa eta xedea"), partaidetzazko toki-garapeneko estrategia aplikatzeko. Honela idatzita geratuko da:

"1. – Itsas Garapen Elkarteak bertan adierazitako estrategia aplikatuko du, eta honako udalerririk hauek osatuko dute: Bermeo, Mundaka, Ondarroa, Getaria, Mutriku, Berriatua, Elantxobe, Orio, Hondarribia, Pasaia, Zumaia, Lekeitio, Lemoiz, Zierbena, Santurtzi, Plentzia eta Donostiako arrantza-portua. Eremu geografiko horren edozein aldaketa Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak baimendu beharko du, eta hitzarmen hau aldatzen duen klausula baten xede izango da.

2. – Ekimenaren helburua izango da zona horren garapen integratuan laguntzea, estrategian adierazitako eta I. eranskina osatzen duten finantza-tauletan modu eskematikoan zerrendatutako jarduerak aplikatuz, partaidetzazko toki-garapenaren esparruan ".

Laugarrena. – I. eranskina aldatzea.

Alde sinatzaileek erabaki dute aldatzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta Itsas Garapen Elkarteak, Flag tokiko ekintza-taldearen artean 2017ko urtarrilaren 1ean sinatutako hitzarmenaren I. eranskina osatzen duten koadroak, partaidetzazko toki-garapeneko estrategia aplikatzeko. Honela geratzen dira:





Anexo I

PLAN FINANCIERO DEL FONDO EUROPEO MARÍTIMO Y DE PESCA (FEMP)

País Vasco

PRIORIDAD / OBJETIVO / MEDIDA	GASTOS TOTALES	PARTICIPACIÓN PÚBLICA			
		TOTAL	PARTICIPACIÓN COMUNITARIA	PARTICI	
			FEMP	TOTAL	AGE
	(1) = (2) + (8)	(2) = (3) + (4)	(3)	(4) = (5) + (6) + (7)	(5)
4. Aumento de empleo y la cohesión territorial	15.934.382,97 €	10.622.921,97 €	9.029.483,97 €	1.593.438,00 €	0
1. Fomento del crecimiento económico	15.934.382,97 €	10.622.921,97 €	9.029.483,97 €	1.593.438,00 €	0
1. Ayuda preparatoria (Art.62.1a)	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0
2. Aplicación de estrategias de desarrollo local (Art.63)	15.934.382,97 €	10.622.921,97 €	9.029.483,97 €	1.593.438,00 €	0
3. Actividades de cooperación (Art.64)	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0

Plan financiero de la EDLP de Itsas Garapen Elkarte

Planificación	Eje 1 Valor	Eje 2 Turismo	Eje 3 Formación, autoempleo y actividad económica	Eje 4 Infraestructuras	Eje 5 Medioambiente	Eje 6 Acuicultura	Eje 7 C Admi
Inicial	3.616.000,00	1.356.000,00	1.356.000,00	45.200,00	452.000,00	1.356.000,00	
Incremento	633.200,00		474.900,00		158.300,00	316.600,00	
Actual	4.249.200,00	1.356.000,00	1.830.900,00	45.200,00	610.300,00	1.672.600,00	



Eta ados daudela adierazteko eta hitzartutakoa behar bezala jasota gera dadin, alderdiek eranskin hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.


Bittor Oroz Izagirre

Nekazaritzako, Arrantzako eta,

Elkagai Politikako sailburuordea

Aurelio Bilbao Barandica

Itsas Garapen Elkarte, Flag

BILBAO
BARANDICA
AURELIO -
14938581N

Firmado digitalmente por
BILBAO BARANDICA AURELIO -
14938581N
Nombre de reconocimiento (DN):
c=ES,
serialNumber=IDCES-14938581N
, givenName=AURELIO,
sn=BILBAO BARANDICA,
cn=BILBAO BARANDICA AURELIO
-14938581N
Fecha: 2021.08.04 14:47:37
+02'00'

